



# Andres Urrutia Badiola

Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Zibileko irakaslea, notarioa eta Euskaltzainburua

Andres Urrutia Badiola Bilbon jaio zen, 1954ko abenduaren 21ean. Deustuko Unibertsitatean abokatu-ekonomista ikasketak egin zituen. Notario izateko oposizioak gainditu ostean, Ondarroan ibili zen lanean 1981etik 1994 arte. Geroztik, Bilbon dihardu. Bestalde, Deustuko Unibertsitatean Zuzenbide Fakultateko irakaslea da, eskola batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz ematen dituela.

Deustuko Unibertsitatean Euskara Juridikoaren Mintegia sortu zuen, eta gaur egun bertako eta Zuzenbide Fakultateko euskara koordinatzailea da. Zuzenbidearen arloko hizkuntzari dagokionez, hainbat lan-ildo jorratu ditu. Hiztegi gintzan aritu zen lehenik, UZEIren eskutik batez ere; testu juridikoen itzulpenean ere aritu da, eta, Gotzon Loberarekin batera, koordinatu ditu bai Deustuko Unibertsitateak argitaraturiko euskarazko zuzenbide-eskuliburuak (zuzenbide zibila, merkataritza-zuzenbidea, zuzenbidearen historia, lan-zuzenbidea...), bai legetestuen bertsio elebidunak, hala nola, Zigor Kodearena eta Kode Zibilarena, beste batzuen artean. 2003an, Euskaltzaindiak Deustuko Zuzenbide Fakultateko hainbat irakaslerekin batera egindako Espainiako Konstituzioaren euskarazko bertsio eguneratua aurkeztu zuen. Bide beretik, euskarazko testu juridiko historikoak berreskuratzeko eta aztertze ahalegin berezia egin du; oraintsu argitaratu duen Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833–1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa horren lekuko.

2004ko abenduan Euskaltzainburu izendatu zuten. Akademiaren barnean Egungo Euskararen Bilketa Sistematiakoaren batzordekide eta buru izana da, Jagon sailburua, bai eta Argitalpen Batzordeko kidea eta Lege-Ekonomia Batzordeko kidea ere (Lege Azpibatzaordeburua).

Bestetik, Euskal Herriko Foru Zuzenbideari buruzko Legea atondu zuen legelarien batzordean parte hartu zuen, eta, egun, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren presidenteordea da. Berebat, Eleria aldizkariaren Erredakzio Batzordeko kide da.

Literaturaren arloan, euskarazko autore klasiko batzuen edizioak prestatzeaz gain, badu zer esanik sortuz, bai eta itzulpen gintzan ere. Labayru Institutuarekin lankidetzan aritzen da.



## Zuzenbidea eta hizkuntza Hastapenak

### 1.

Zuzenbidearen eta hizkuntzaren inguruan hainbat eremu jorratutako gizona zaitugu. Zure ibilbidearen erreposoari nonbaitetik ekiteko, Zuzenbidearen alorreko euskara teknikoak lantzen hasi zinen garaitik heldu nahi genioke hariari. Gogoan al duzu zerk piztu zuen zugar kezka hori? Nola hasi zinen euskara juridikoaz arduratzen?

Egia esan, aspaldiko kezka zen hori niretzat, Deustuko Unibertsitatean ikasle izan nintzenetik behintzat. Aurreko erregimenean bizi ginen, eta euskara gorantz zetorren. Arantzatzuko Kongresuaren ondorengo urteak ziren haiek (1971-1976). Unibertsitateko giroa euskaltzalea zen, ikasketak erabat erdaldunak baziren ere. Euskal Kultur Mintegiko ikasle izan nintzen, eta Anaitasuna eta Zeruko argia aldizkariak irakurle. Gero, Madrilera joan eta notario-ikasketak egin bitartean, euskarari ekin nion, udaro-udaro Labayru Ikastegiko ikastaroen bitartez. Azkenean, UZEI sortu eta orduantxe ikusi nuen, ezin garbiago, euskara juridikoa garatzeko tresna egokia. Oposizioak atera, Ondarroara notario etorri, eta 1981. urtean, Joseba Intxausti buru zela, UZEIren ZUZENBIDEA Hiztegian kolaboratzen hasi nintzen. Harrezkerokoa begi-bistakoa da...

## Euskara juridikoa lantzen

### 2.

1990. urtean eman zenuen argitara *Euskara Legebidean*, aurretik agertutako artikuluz osatua, eta bost urte geroago plazaratu zen *Euskara, Zuzenbidearen Hizkera*, Deustuko Unibertsitateko Euskara Juridikoaren Mintegian, hainbat lankiderekin batera egina. Zeintzuk izan dira lan ildo horren ekarpen nagusiak?

Lehenengo eta behin, ordurako nituen euskal ikasleei halako materialak euskaraz eskaintzea. Izan ere, orduantxe hasi ginen Deustuko Unibertsitatean euskarazko ikasgaiak ematen. Lehenik, Xabier Arzalluz eta Aitor Esteban izan ziren, segidakoa ni neu, Karmelo Zamalloarekin batera, 1987. urtean. Berehalakoan, Abel Muniategi, Josu Erkoreka, Rikardo Gatzagaetxebarria eta beste batzuk.

### 3.

Euskara Juridikoaren Mintegiaz ari garela, zure ibilbidean lanerako taldea sortzea garrantzitsua izan dela ematen du...

Premiek eta beharrek zuzeneko eragina izan zuten horretan. Behar-beharrezko genuen irakasleak trebatu, testugintzan aritu eta euskara Zuzenbide Fakultatean bultzatzea. Hartara, Santiago Larrazabal, Lorentzo Goikoetxea eta hirurok adostu genuen alde aurretik neronek egindako txostena, eta abiatu ginen zin-zinezko lantaldea osatzera. Halakoa egin dugulakoan nago, batez ere azken hamar urteetan gure fakultatean ondu dugun lana ikusita. Horretarako, esan beharrik ez dago, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen parte-hartzeak ere ezinbesteko izan zaizkigu, euroi esker lortu baitugu zuzenbidearen arloan euskaraz dugun argitalpen-katalogo mardula.

## Testu historikoak

### 4.

Zure beste ardura bat euskal testu juridiko administratibo zaharrak arakatzea eta argitara ematea izan da. *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa* liburu mardula, horren adierazgarri. Bilketa lan horren ondorioetan agertzen da gaztelania eta euskara, biak erabiltzen zirela ahoz eta idatziz Bizkaiko Batzar Nagusietan XIX. mendean. Zer nabarmenduko zenuke garai hartako euskararen erabileraz?

Nire ustez, historiak baditu erakusbideak eta irakasgaiak euskara juridikoaren ikuspegitik. Besteak beste, honako hauek: topikoa da esatea euskaraz deus ere ez dagoela. Aitzitik, izan bada, eta eskuartean dugun hori aztertu behar da ikusalde askotatik. Horretarako, alabaina, alfer-alferrik erabiliko da hizkuntzaren irizpide soila, hori berori kokatu behar baitugu esanguraren barruan eta bitzuok batera erabili. Bistan da, bestalde, euskarazko testu historiko-juridikoak alboratu gabe, ahozko aztarnak ere bilatu behar direla, sarri-sarri agertzen baitira halakoetan euskaraz bizi zen gizarte eta lege-mundu baten lekukotzak.

## 5.

Zuzenbideari lotutako euskal testu historikoak bildu eta argitaratze lanak bere bidea egin du azken urteotan. Hainbaten lanari esker hobeto ezagutzen ditugu orain mendez mende Zuberotatik Bizkaira euskaraz idatzitako testu juridiko historikoak. Ezagutzera eman diren testuen argitan, ezer berririk esan al daiteke gure tradizio xume horren gainean?

Xume da hor erabiltzen duzun izenondoa. Nik neuk ez nuke horrenbeste azpiratuko gure tradizioa, batik bat berori aurkigai dugunean. Badakigu egundoko aurkikuntzak ez ditugula egingo. Zernahi gisaz, seguru nago bestelako zantzuak ere izango ditugula aurki, eta, bide beretik, horiek osatzen eta elkarbetetzen ahaleginak egin beharko ditugula. Askorentzat, ordea, arkeologia juridikoaren saioa neketsuegi izan, eta nahiago dute Aldizkari Ofizialaren mundua. Halakorik ez dut ikusten euskararen historian. Agiantza hutsak, bestalde, ez dira izaten eragile egokiak zientzia juridikoaren arloetan.

## Hiztegiintza

## 6.

UZEIk *Zuzenbide Hiztegia* (1984) egiteko hainbat lagun bildu zituen garaietatik hogeitaz urte igaro dira. Nolakoak izan ziren hastapen haiek? Zein egoeratan zegoen orduan euskarazko terminologia juridikoa?

Egia esan, hastapen-hastapenetan, ordu arte egina zena ere behar bezala ez baikenuen ezagutzen. Ezari-ezarian, batean asma, hurrengoan susma... Halaxe egin zen hura, esku artean zena egoki zertuz, baina inguruan, hau da, gizartean zegoen euskararen presentzia juridiko urriak harago joaterik ahalbidetzen ez zuela. Dena den, pauso garrantzitsua izan zen hura, eta harrokeriaren puntua zilegi bekit, gerora eman diren osterantzeko ekimen frankoren oinarri eta sustraia.

## 7.

Hiztegi horren atzetik etorri dira beste batzuk, Zuzenbidearen arlo berezituak jorratzen dituztenak. Nola ikusten dituzu, egun, euskara juridikoaren gaineko lexikografia eta terminologia?

Niretzat ez dago ondo bideratuta. Nonbait eta noizbait idatzi dut garaia dugula hiztegiak testugintzan txertatzeko eta frogatzeko, batik bat zuzenbidearen

“ Zuzenbidean gero eta asmazio gutxiago egin behar da euskaraz. Bai, ostera, biltze-, bateratze- eta adoste-lana

”

arlotan desberdinetako testuak ditugunean. Hala eta guztiz ere, badago herri honetan terminologia egiteko modu ohargarria, termino bera inolako euskarri diskurtsiborik gabe asmatzeko eta zabaltzeko. Ondorioak hortxe daude, hamaikatxo hiztegi baitabil bazterretan, horien helburua zein den ondo-ondo jakin gabe. Zuzenbidean gero eta asmazio gutxiago egin behar da euskaraz. Bai, ostera, biltze-, bateratze- eta adoste-lana, terminologia egoki den ala ez testugintzaren arabera probatuz, eta ez ezerezetik asmatuz. Badirudi “hiztegitis” honen barruan bakoitzak nahi duela berea atera, eta, jakina, besteei ezarri, agintaritze-argumentua nondik datorren zehatz-mehatz ez dakigularik. Oro har, alabaina, aurrerakada nabariak igartzen dira beste behin deitu nuen hartan, hau da, bigarren belaunaldiko hiztegietan, zuzenbidea arloz arlo lantzen duten horietan.

## 8.

Euskaltzainburu zaitugun legez, galde egin nahi genizuke: zein leku betetzen du, lekurik betetzen badu, Hiztegi Batuak hizkera teknikoaren terminologiaren normalkuntzan?

Berebizikoa eta oinarritzkoa. Nekez erdietsiko ditugu hizkera tekniko/ak euskaraz, aldeztatik horren oinarri eta eustazpi den euskara batua egoki eta artez moldatzen ez badugu. Gure artean maiz ahazten da edozein hizkuntzatan “hizkera arrunta-hizkera berezituak” bikoteak dituen ezaugarriak. Lehena gabe, bigarrena ezina. Esan dezadan bidenabar, bestalde ere, badirela Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua moldatzearekin batera arlo berezietan erabilgarri diren hitz teknikoak, hitz horiek, nabarmen denez, gaur eguneko herritarren hizkeran bertakotuta daudelako. Inon bada hori ageriko, zuzenbide, ekonomia edota

**“ Nekez erdietsiko ditugu hizkera teknikoak euskaraz, alde zurretik horren oinarri eta eustazpi den euskara batua egoki eta artez moldatzen ez badugu ”**

medikuntzan da, egun komunikabideen albisteetan etengabe errepikatzen zaizkigulako halakoak: delitua, burtsa, adierazpen-askatasuna.... Portalis eta Domat.

**2.**

Itzulpenaren arlora etorri, Frantziako Kode Zibilaren Atariko Titulua eta Jean Domaten *Legeen Tratatua* euskaratu dituzu. Zein dira aukera horien arrazoiak?

Argi daude horiek niretzat. Izatez, badira euskaraz halakoak ezagutzeko arrazoiak. Bateko, bi horiek, eta beste askok, gizakiok sortutako kulturaren barruan filosofia eta zuzenbidea uztartzen dituztelako, maiz alboratzen dena, beste batzuen mesederako; besteko, testu labur bezain esanguratsu horiek eskaintzen dizkigutelako guri euskaldunoi, historian zehar izan ez dugun bilakaera juridiko baten lekukotza. Hirugarrenez ere, luzeak izan ez eta erraz irakurtzeko modukoak dira, betiere euskararen kalitatea ondo zaintzen saiatu behar dugula.

## Testugintza

**10.**

Egungo testu juridikoen itzulpenean ere aritua zara. Gotzon Loberarekin batera koordinatu dituzu Zuzenbideko hainbat

eskulibururen euskaratze lanak, hala nola, zuzenbide zibila, merkataritza zuzenbidea, zuzenbidearen historia, lan-zuzenbidea... Zer nabarmenduko zenuke itzulpen esperientzia horri buruz? Zer nolako harrera izan dute itzultitako lanek zuzenbideko ikasleen artean?

Hasteko, gure lanak sorkuntza- nahiz itzultze-lanak direla aitortu behar, maiz itzulpen-lanari mesprezuaren zimikoa egiten zaiola. Itzulpenari dagokionez, guztiz aberasgarria izan da lan hau, zenbaitek gutxietsi badute ere. Horren bidez lortu dugu irakasle berriak euskaraz trebatzea eta testu-egile bikainak izatea, ahoz zein idatziz ikasgaiak euskaraz azaltzeko; hizkuntzaren eskarmentua ere izan dugu, gure esamoldeak, hiztegia eta gainerakoak erruz hornitu ditugula; bestetik ere, testu-masa izugarri baten jabe gara, hain zuzen ere, laster sarean jarriko duguna, edonoren esku eta zerbitzuko. Geroagoko proiektuek ere, nahitaez, hauetan izan behar erro sendoak. Nabarmen da, bestalde, eta ikasleei dagokienez, eskuliburu hauek ekarri dizkigutela egundoko abantailak, ikasleek eurek ere halako tresna erabilgarriak izateko, eta berriro diot, ahoz eta idatziz euskara juridiko duin baten partaide izateko. Ezin adierazgarriagoa izan da, kasurako, eskuliburuak abian jarri eta ikasturtez ikasturte ikasleengan igarri dugun euskara juridikoaren kalitate-gorakada.

## Lege itzulpena

**11.**

Legezko testuen itzulpena da zure lanaren beste adar bat. Estatuko ordenamendu juridikoaren giltzarri diren hainbat legezko testu itzuli duen taldea zuzendu duzu urtetan. Lan horren nondik norakoez hitz egiguzu...

Aurrekoaren osagarria da. Aspalditik ekin genion lan honi, eta oraintxe ari gara argitaratzen lan horren fruituak. Taldeka egin dugu lan, uste baitugu egun diziplinen artekotasuna ezinbestekoa dela, Alcaraz Varo maisuak Deustuko Unibertsitateko jardunaldietan<sup>1</sup> azpimarratu zuenez. Guretzat giltzarri da proiektu hau, eta laster osatuko dugu testu elebidunen biblioteka, hain zuzen ere, Interneten eskainiko dena. Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua izan da gure babeslea eta lantokia, eta langintza horretan jarraitzeko asmoa dugu, betiere HAAE/IVAPEk emandako laguntza ahaztu gabe. Orobat Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailarena.

1. Hizkera Juridikoa eta Itzulpengintza: euskararen norabideak Sinposioa, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren babesarekin antolatua. Deustuko Unibertsitateko Entzungen, 2004ko azaroaren 17 eta 18an.

**“ Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua izan da gure babeslea eta lantokia, eta langintza horretan jarraitzeko asmoa dugu**

”

## 12.

Berebat, Kode Zibila eta horren aurretik Zigor Kodea itzuli dituzue Deustuko Unibertsitatean, HAEE/IVAP eta EHUren parte hartzeaz. Horrelako lan eskergak metodologia berezia eskatuko zuen, noski...

Zortzi testu argitaratuak izan dira jada, eta abiada onean gabiltzala uste dut. Funtsezko metodologian bi arrazoi nagusi izan dira: adostasuna eta euskararen kalitatea. Hartara, kasu batzuetan egiteko modukoa izan dugu Euskal Herriko Unibertsitateko zenbait irakaslerekin esamoldeak adosteko aukera. Besteetan, kasuan kasuko agintariena erdietsi dugu (HAEE/IVAP, Nafarroako Parlamentua...). Edozein modutan ere, testua lantaldean ondu dugu Deustuko Unibertsitatean, eta gero etorri dira, eroapen handiarekin, iradokizunak, zuzenketak eta abarrekoak, arlo desberdinetako adituen ekarpenak bertaratzeko.

## 13.

Lege-itzulpenari gagozkiola, 2004. urtean Espainiako Konstituzioaren euskarazko bertsio bat aurkeztu zenuen Gorteetan, Euskaltzaindiaren izenean. Non kokatzen da ekimen hori Euskaltzaindiaren lanean?

Agindua zuzenean etorri zitzaion Euskaltzaindiari Espainiako Senatuaren aldetik. Artean, Euskaltzaindian ondu zen Espainiako Konstituzioa aldarrikatu zeneko lehen testua (1978koa), gero ezezagun diren eskuetatik igaro bazen ere. Aukera ezin hobea zen orduko testu trakets hura hobetzeko eta zorrozteko. Horretarako ahalegina egin genuen Euskaltzaindiaren Lege Batzordean. Emaiza... zuen esku.

## Euskara juridikoaren egungo egoera

### 14.

Lurzoruaren lege proiektuaren itzulpenak hautsak harrotu zituen 2004ko azaroan. Euskarazko testuarekin lan egin nahi zuen alderdi politiko batek salatu zuen egindako itzulpenarekin ez zegoela aurrera egiterik. Nola ikusten duzu Euskal Herriko erakundeen araugintzari lotutako euskarazko itzulpena?

Oraindik ere sakabanatuegia. Nondik-nahi begiratuta ere, baiezkor nago, uste baitut gero eta batuago datorrela esamoldeen eta hiztegiaren uhina, eta, are nabariagoa dena, eragile juridikoek erakusten duten euskararen erabilera. On eta egoki ikusten dut euskarari ere kalitatea eta duintasuna aitortzea legeen itzulpenetan, bestela ez baitago aurrerapausoak ematerik. Asko falta zaigu, baina aurrera goaz.

### 15.

Deustuko Euskal Gaien Institutuak 2004ko azaroan antolatu zituen Jardunaldietan argi esan zen arauen itzulpenaz beste, testu juridikoen itzulpenean aritu diren eta aritzen diren hainbat jardule, berebat, HAEE/IVAP, UZEI, Deustuko Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea, euskara juridikoaren eredu desberdinekin lanean aritu izan direla. Gogoeta horrekin lotuta, foro berezitu bat behar zela bota zenuen Jardunaldi haietan...

Ez dut sinisten eredu desberdin horietan. Gero eta gehiago sinisten dut erakunde bakoitzak egiten eta plazaratzen dituen emaitzetan. Jakina da esaera zaharra: arbola fruituetarik eta gizona egintzetarik. Hala ezagutzen dira gaur egun eragile juridikoak. Beste gauza bat da esperientziak elkar trukatzeko foro eta guneak sortzea, bakoitzak duen esperientzia eta ondaretik abiatuta. Elkarrekin aritzea on da; ekimen batzuk, alabaina, ez daude egiteke, eginak baino. Hortik abiatuta, harago joan behar dugula argi dago, interes partikularren gainetik eta euskararen aurrekuntzarako. Bestela argi dago nahasiko eta okerretara erabiliko ditugula euskararen premiak eta norberaren agiantzak.

### 16.

Zuzenbidea eta euskara uztartzen dituen atal honekin bukatzeko, eta orain arteko

zure lanaren koherentziak atzean plangintza eta antolamendu argia izan duela aditzera ematen duenez, etorkizuneko egitasmoez galdegin nahi nizuke: zein izango dira zure lanaren ildoak hurrengo urteetan?

Euskaltzaindiaren goiburuari iraulia eginez, zilegi bekit ekinean jarrai idaztea, horixe baitut aspaldiko bandera eta eginkizun. Badira hor egin beharrekoak, eta horietan jardungo dut suts eta bits. Oraingoz, haatik, lege-itzulpen saila bukatzeko daukat, eta eskulibururen bat edo etorriko da. Bestalde, aurreko lerroetan ibili, testu zaharren bila, hiztegitintzan... Nire berri izango da nonbait.

## Foru Zuzenbide zibila

### 17.

Bukatzeko, gatozen orain zure beste ardura garrantzitsu batera, Foru Zuzenbidera hain zuzen. Euskal Herriko Foru Zuzenbideari buruzko Legea atondu zuen legelarien batzordean parte hartu zenuen, eta Zuzenbidearen Euskal Akademiaren lehendakariorde zaitugu egun. Hitz egiguzu Akademia horren zeregin eta xedeez...

Ekimen polita, berria eta indartsu erakutsi duena bere burua. Kontua da legelariak batzea eta lanean jartzea, Euskal Herriari dagozkion gaietan parte har dezaten. Hiru sail ditu: zuzenbide pribatuarena, zuzenbide publikoarena eta zerga-zuzenbidearena. Hiruhileko aldizkaria ere badugu, bertan gaztelaniazko eta euskarazko testuak argitaratzen direla. Euskal zuzenbidearen klasikoak berrargitaratzeari ere ekin diogu, faksimil eran; jardunaldiak egin ditugu eta egiteko ditugu... Hitz batez esateko, euskal juristentzat batzarlekua eta elkargunea. Horra ere, esan beharrik ez dago, Eleria-ren irakurleak gonbidaturik daude.

### 18.

*Eleria* aldizkariaren aurreko alean, Adrián Celaya Ibarra jaunak Euskal Herriko Foru Zuzenbideari buruzko Legea eguneratzeko beharraz hitz egin zigun. Nola dakusazu zuk auzi hori?

Premiazkoa. Hain zuzen ere, Zuzenbidearen Euskal Akademiak laster egingo du dei bat horren inguruan, foru-zuzenbideak, edo, hobeto esanda, Euskal Herriko zuzenbide zibilak behar den moduko eguneratze-prozesua izan dezan.

Elkarrizketatzailea: Itziar Alkorta